

tural surgieron las primeras novelas infantiles de la serie “Las aventuras de Kiel”, de las que ha publicado tres títulos: *La flecha mágica*, *El señor de la máquina* y *El secreto del hipocor*.

Posteriormente se inclinó por la novela de adultos, primero desde el género policiaco y después desde la novela histórica. *Conexiones oscuras*, *Kowelzi*, *la trama turca* y *El solitario* son las tres novelas de intriga del autor, quien en 1996 gira hacia la novela histórica. Sus dos primeros libros de este género, *La profecía de Basquevanas: cuando los hombres luchaban a caballo* y *El esclavo de Almanzor*, se sitúan en el siglo X. Con *El criollo* nos lleva de la mano de Hugo hasta el siglo XIX: hijo de un rico hacendado español asentado en Cuba, Hugo decide hacerse oficial del ejército español en los años previos a 1898.

En 2015 publica su último libro, esta vez ambientado en el siglo XVII, *El Tesoro del holandés*, en el que a través de las aventuras de Carmen, protagonista femenina de la novela, ofrece una visión nada idealizada del mundo de los piratas del Caribe.



266



**Romero Fernández,
Mari**

(Quintana de la Serena, 1958)

Quintana de la Serena, Extremadurako herri batean jaio nintzen, orain dela 58 urte.

Nire gurasoek, etorkizun hobea eraikitzeko, bere lurraldea utzi behar izan zuten eta egun batean Altsasura heldu ziren. Herria gustatu zitzairen eta ilusioz beterik bizitzari aurre egitea erabaki zuten.

Baina, ni jaiotzear nengoela, Quintanara bueltatzea erabaki zuten. Emigratzeari egin zioten familiaren lehenak izan ziren eta han senideen babesak izango zutela pentsatu zuten.

Horrela, 20 hilabete besterik ez nuela, hasi zen Altsasura ekarriko ninduen lehen bidaia eta leku horretan 10 urte pasa nituen.

Eta, haurtzaroaren garai horretan, Nafarroarekiko dudak maitasuna garatu zen. Orain Legazpin bizi naiz, nire gurasoak hona bizitzera ekarri gintuzten, hemen aitak lan egiten zuelako, baina Altsasu herriarekin nuen harremana ez dut inoiz galdu eta nire haurtzaroa pasatu nuen etxeak idazten hasteko behar nuen bultzada eta indarra eman zidan. Han bizitako pasadizoak ahaztezinak izan dira, oroitzapenak beti zebiltzan nire buruan biraka eta behin eta berriz leku horretara eramaten ninduten. Egun batean, hainbeste nostalgiarekin zer egin ez nekienean, sentitzen nuen guztia idaztea erabaki nuen, eta une horretan, hori egitea zenbat maite nuen konturatu nintzen.

Eleberririk idaztea ez da plana egindako zerbait izan. Oso sentibera nengoen bizitzako momentu batean agertu zen ideia, agian une egokia zen unean, edo beharbada horrela gertatu behar zen, ez dut gehiegi sakonduko gai honetan.

Idaztea, umea nintzenetik gustatu zaidala aitortu behar dut, nire familian elikatutako zaletasuna izan da, txikitatik gure aitak poesiak idazten ikusi dugulako.

Nire memoria zirikatzen badut, momentu horiek erreskatatu ditzaket eta aita imitatuz, gauza bera egiten nuela etortzen zait burura.

Behin baino gehiagotan galdetu didate nola bururatu zitzaidan liburu bat idaztea. Eta gauza bera erantzuten diet beti, egia esateko ez dakit nola gauzatu den, agian desio hori nire barnean egon da betidanik.

Nire ibilbidea, idazlea bezala, oraindik ez da luzea. Poesiak, ipuinak eta hiru nobela idatzi ditut. Horietatik, ipuin bat argitaratua dago "Los nuevos vecinos" eta baita nobela bat ere *La casa de la Buhardilla*, Tandaia argitaletxeak argitaratu duena. Beste bi nobela ditut argitaratu gabe.

Eta idazten jarraituko dudala onartu behar dut asko gustatzen zaidalako.

Eskola publikoko irakaslea naiz eta nire lana maite dut, 35 urte pasa ditut gela baten haurraz inguraturik, irakasten, nire esperientzia beraiekin konpartitzen eta baita beraiengandik ikasten ere. Benetan lan atsegina da niretzat.

Nongoa naizen galdetzen didatenean, erantzuna erraza da.

Ni legazpiarra naiz.

Baina nire barnean beste bi leku daramatzat, Altsasu, haurtzaroa zoriontsua pasa nuen herria eta Quintana, gurasoek utzi behar izan zuten herria.

